



GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ko GIDARI-BILTZAILEEN BEHIN BEHINEKO KONTRATAZIOAK EGITEKO PREMIAZKO LAN-POLTSA ERATZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRIAK

1.- OINARRIEN XEDEA

Oinarrien Xedea Garbitania Zero Zabor S.M. (aurrerantzean Garbitania) enpresako gidari-biltzaile premiazko aukeratze prozesua arautzea da, sortu dakioken behin-behineko, soilik aldi baterako beharrak asetzeko, hala, prozesu honetan eratzen den lan-poltsak ez du indarrean dagoen lan-poltsa ordezkatzeko behin betiko kontratazioei dagokienez; horrez gain, prozesu honetatik eratorriko den lan-poltsa subsidarioa izango da eta ohiko lan-poltsa agortzen denean soilik erabiliko da.

Garbitaniak zehaztu beharko du lanaldia, betiere lanpostuaren izaeraren eta premien arabera.

Gidari biltzaileen urteko ordainkizun gordina 30.401,70€ + osagarriak izango da. Soldata hori kontzeptu guztiengatik izango da, eta 12 hileko ordainketatan eta aparteko bitan, abenduan eta ekainean, egingo da.

Hautaketa prozesua gainditzen duten hautagaiek lan poltsa eratuko dute, lortutako puntuen arabera. Lan poltsa hori erabili ahal izango da Garbitaniak izan litzakeen aldi baterako lan premiak betetzeko, unean uneko lanpostu hutsak betetzeko, aldi baterako programak egiteko, eginkizunen pilaketagatik, behin-behineko beharrak betetzeko.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira aurreko deialdien ondorioz gidari-biltzaileen indarrean dagoen lan-poltsan sartuta daudenak.

Berariazko deialdi honen ondorioz poltsan sartuko direnak hautaketa-prozesuko emaitzen hurrenkeraren arabera sartuko dira, hain zuzen.

2.- LAN BALDINTZAK ETA EGINKIZUNAK

Lansaioa Garbitaniak zehaztutakoa izango da, zerbitzuaren premien arabera. Lanegunak eta ordutegia Garbitaniak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera.

Deialdi honen xede den lanpostuaren funtzioa Garbitaniak zerbitzua eskaintzen duen udalerrietan hondakin bilketan zein kale-garbiketean, gidari-lanak eta bilketa-lanak egitea, bere EGINKIZUNAK, besteak beste, ondoko hauek dira:

- Koordinatzaileak eta hezitzaileak emandako lan aginduak betetzeko eta hauek egiten duten lan banaketaren arabera:



- Garbitaniak dituen kamioiak egoki erabiliz agindutako herrietan zamalanak egitea, batik bat, hondakin bilketatik eratorritakoa. Alegia, kamioiak gidatzeaz gain bilketa bera burutzea.
 - Kamioiaren ardura hartzea eta ohiko garbiketa eta mantentze-lanez arduratzea, edota bere arduradunari berri ematea.
 - Larrialdi eta ekarpen guneetako bilketa eta garbiketa egitea.
 - Intzidentziak eta sortutako hondakinen ordainketak kontrolatzeko sistemen aplikazio eta jarraipena egitea.
 - Poligonoetako hondakin desberdinen bilketa egitea, kontenedoreen bidez.
 - Lantegietako kontenedoreen bilketari lektorearen bidez, jarraipenak eta intzidentziak egitea.
- Bere ardurapeko lanen plangintza burutu, erabilgarri dituen baliabide eta epeen arabera.
 - Kale-garbiketako zerbitzuan C gidabaimena beharrezkoa duten ibilgailuak gidatu (zisterna-kamioia, barredora, fregadora eta halakoak).
 - Esleitutako baliabideen eta lan tresneriaren mantentzeaz arduratu.
 - Jai eta ospakizunetan beharrezko azpiegituren instalazio lanetan lagundu.
 - Burututako lanak eguneko partean jaso eta arduradunari helarazi, honek gainbegiratu dezan.
 - Langileen hautatze prozesuetan parte hartu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datorrenean.
 - Saileko arduradunak hala ezartzen duenean, saileko gainontzeko lanpostuen ordezkapenak burutu, horretarako beharra dagoenean (bajak, oporraldiak, etab.), bere lanpostuaren kategoria eta gaitasunak kontutan izanik.
 - Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datozenak.

3.- BALDINTZAK

3.1 Deialdian parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a) 16 urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaez erretiroa hartzera behartzen duen adina bete gabe izatea.
- b) Eskola-ziurtagiri edo parekoa den titulazio maila izatea.



c) Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere kontura edo emantzipatuta bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe dauden atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela frogatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen. Diziplinazko espedientearen bidez inongo Administrazio Publikoren Zerbitzutik baztertua ez izatea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea.

d) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko dion gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

e) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez izatea, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina burutzen ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorriz.

f) Diziplina espediente bidez estatuko, autonomi erkidegoetako edo toki-erakundeetako zerbitzurik kanporatu ez izana; eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea.

g) C gida baimena edo baliokide baten jabe izatea.

h) Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiriaren (GPZ) jabe izatea.

i) Hala badagokio, %33 edo gehiagoko desgaitasuna aitortzen dion ziurtagiria.

3.2 BALDINTZA HORIEK GUZTIAK ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA AMAITZEN DEN EGUNERAKO BETE BEHAR DIRA ETA BALDINTZA HORIEK MANTENDU BEHAR DIRA PROZESU GUZTIAN ZEHAR

3.3. Lanpostuari dagozkion beste zehaztasunak

a) Udalhitzeko hitzarmenaren aplikazioa

b) Dagokion Udalhitzeko maila: 8

c) Dagokion Udalhitzeko taldea: LT



d) Osagarri espezifikoa: arriskutasuna, toxizitatea e.a. engatik %5eko jardunaldiaren murrizketa

4.- ESKABIDEAK

Hautagaiak 3. oinarrian jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela eta merituetan baloratzen dena adierazi beharko dute hautaketa prozesuan parte hartzeko aurkezten den eskabidean. (I.eranskina).

Eskaera horiek Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerentziari zuzenduko zaizkio.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak ondoko baldintza hauek bete beharko ditu atzera bota ez daitezenez:

a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute hautagaiak, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:

- Hautagaiaren pertsonalitatea eta gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa: nortasun-agiri nazionala edo baliokidea.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren originala edo kopia.
- Curriculum Vitaea.
- Hizkuntza eskabideak betetzen direla ziurtatzen duen agiri originala edo kopia.
- Bizitza laboralaren txostena.
- Gidatzeko baimena.
- GPZ.
- Merezimendu guztien zerrenda aurkeztu beharko da, oinarri hauen I. eranskinean jasotako eredia erabiliz, merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriak eta guzti. Dokumentu horiek, jatorrizkoak edo fotokopia izan beharko dira. Ezin izango da baloratu eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu eta frogatu ez den merezimendurik, ezta ere, epearen barruan aurkeztuta egon arren, ondoren frogatutako merezimendurik. Lan esperientziari dagokionez, enpresa agirian argi adierazi beharko da alegatzen den lana puntuagarri den esperientzia motakoa dela.

ALEGATZEN DIREN MERITUAK EGIAZTATZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK PARTE-HARTZEKO ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTUKO DIRA DEIALDIAN EZARRITAKO EPEAN. BERANDUAGO AURKEZTEN DIRENAK EZ DIRA BALORATUKO.

Deialdian parte hartzeko eskakizunak nahiz merezimenduak egiaztatzeko, jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero, eskaerak eta perfilen egokitasuna aztertuko da.



5.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaerak, behar bezala beteta, ondorengo helbidera izango dira bidaliak:

- **Garbitania Zero Zabor S.Mren bulegoetan** (Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu auzoa, Hernani, 20120) aurkeztu ahalko dira, 9:00etatik 14:00etara.
- Horrez gain, eskabideak **postetxean** aurkeztu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura erkidearen 39/2015 legeak dion bezala, hurrengo helbidera: Lastaola Poligonoa 3. A-12 eraikina. 20120 (Hernani).

Aipatutako Legearen 38.4 artikuluari jarraiki eskabidea postetxean aurkezten bada, irekitako kartazalean aurkeztuko da, postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaion, eskabideak aurkezteko epean aurkeztu dela ziurtatzeko. Hori ezinbesteko baldintza izango da eskabideari GARBITANIA sarrera-erregistroan postetxean aurkeztutako datarekin sarrera emateko. Eskabideari jarri behar zaio zigilua.

Horretarako azken eguna, **2024ko maiatzaren 10n izango da.**

6.- HAUTAKETA BATZORDEA

6.1. Osaketa:

Hautaketa Batzordea hurrengo kideek osatuko dute:

- Gorka Berasategi Lezana (Epaimahaiburua). Ordezkoa: Eneritz Gurrutxaga Gogortza
- Andoni Labaka Vicente (Epaimahaikidea). Ordezkoa: Xabier Arruti Ustoa
- Imanol Manzaneres Mercero (Epaimahaikidea). Ordezkoa: Xabier Etxarri Balerdi
- Jon Kortajarena Rubio (Epaimahaikidea). Ordezkoa: Ania Ibarguren Kintana
- Nora Etxaniz Ruiz (Idazkaria) Ordezkoa: Agurtzane Arrillaga Aldalur

Hautaketa batzordeari dagokio:

- Eginiko frogak guztiak baloratzea



- Oinarri hauek interpretatu eta zalantzak argitu
- Administrazio Kontseiluari kontratatu beharreko hautagaiak proposatzea

Epaimahaietako titularrek, epaimahaiburuak, idazkariak eta gainerako kideek, beren ordezkioak izango dituzte; ezin izango du jardun, gutxienez, kideen erdiak - titularrak zein ordezkioak – baino gehiago ez badaude.

Epaimahaiko kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, honek ez baitu botorik edukiko. Bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak eta hainbanaketa egonez gero, epaimahaiburuaren botoak erabakiko du.

Gaixotasun bat edo hutsegiteren bat egonez gero, eta orokorrean, pisuzko arrazoiren bat dagoenean, organo kolegiatuko kide titularren lekuan ordezkioak arituko dira. Hutsegite, gaixotasun edo bestelako arrazoi legalen bat gertatzen bada, lehendakariaren ordezkio bere ordezkioak jardungo du eta, ordezkioak ezingo balu, hierarkia, antzinatea eta adin handieneko epaimahaikidea arituko da. Idazkariaren aldi baterako ordezkioa, etorri ezin delako edo gaixorik delako, bere ordezkioak beteko du edo, hala ez balitz, idazkariaren beraren akordio bidez egingo da.

Epaimahaiak oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

Komunikaziorako eta bestelako gora beheretarako, haxe izango da Epaimahaiaren helbidea: Garbitania, Zero Zabor, S.M, Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu auzoa, 20120 Hernani

6.2 Aholkulariak:

Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, epaimahaiak egokiak irizten dion probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.3 Jarduketa prozedura:

- a) Hautaketa batzordeak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.
- b) Hautaketa batzordeak froga bakoitza baloratzeko irizpideak alde aurretik erabakiko ditu. Irizpide horiek zehatzak eta argiak izango dira erabat eta puntuaketa egin duten pertsonen zorroztz aplikatuko beharko dituzte.
- c) Hautaketa batzordeak proposaturiko hautagaiekin zerrenda osatuko da, deialdi honen objektua den behin-behineko beharrak betetzeko.



7.- HAUTAKETA PROZEDURA

Hautagaiak hautatzeko prozedura lehiaketa izango da eta fase bakar batean egingo da. Hautagaiak gehienez 100 puntu lortu ahal izango ditu.

1. FASEA: LEHIAKETA. GEHIENEZ 100 PUNTU

- Curriculumeko merituen balorazioa. Eskainitako lanpostuarekin harremana duen esperientzia baloratuko da. Derrigorrezkoa eta ez baztertzaila.

Atal honetan, Epaimahaiak, ondorengo merituak balioztatuko ditu, **aurrez adieraziak eta egiaztatuak izan badira:**

a) Lan esperientzia (gehienez 80 puntu)

1. Hondakin atez ateko gaikako bilketan edo kale-garbiketa lanetan C gida-baimena behar duten ibilgailuak gidatzen (hala nola, kamioiak, barredorak, fregadorak, etab.) egindako hilabete bakoitzeko (30 egun) 1,5 puntu emango da.

Hilabetea baino frakzio txikiagotan lan egindako epealdiengatik jasotako puntu kopurua, 1. atalean jasotako baldintzaren baitako zuzenki proportzionala izango da

Atal honetan gehienez 50 puntu lortu ahal izango dira.

2. C gida-baimena eskatzen duten ibilgailuen gidari-lanetan lan egindako hilabete bakoitzeko (30 egun) 1 puntu emango dira.

Hilabetea baino frakzio txikiagotan lan egindako epealdiengatik jasotako puntu kopurua, 1. atalean jasotako baldintzaren baitako zuzenki proportzionala izango da

Atal honetan gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira

b) Euskararen ezagutza. (Gehienez 20 puntu)

Titulu ofizial bidez ziurtatu beharko da.

HE3: 20 puntu

HE2: 10 puntu

HE1: 5 puntu

Atal honetan gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira.

8.- HAUTAKETA-PROZESUA HASTEKO EGUNA ETA HURRENGOAK



Hautakea prozesuaren informazio guztiak Garbitaniako web orrian argitaratuko dira (<http://www.garbitania.eus>).

Epaimahaiak edozein unetan eskatu diezaieke hautagaiei behar den moduan identifikatu daitezen. Honekin lotuta, ariketa guztietara nortasun-agiria eraman behar da, edo epaimahaiak identifikatzeko egokitzat jotzen duen beste edozein agiri (pasaportea, gidabaimena...).

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagaien batek deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela, hautagaia baztertuta utziko du, entzunaldia egin ondoren, eta honen berri emango dio egun berean hautaketa-prozesurako deialdia egin duenari.

9.- ONARTUEN ZERRENDA ETA KONTRATATZEKO PROZEDURA

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Garbitaniak, hurrengo hamabost egunen barruan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du

Hautagaien zerrenda Garbitaniako web orrian argitaratuko da: www.garbitania.eus.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda behin-betikotzat joko da inolako erreklamaziorik jarriko ez balitz. Egon balego, behin betiko zerrenda onartuko duen akordio berri batean onartu edo baztertuko dira, adierazitako moduan argira emango dena.

Hautaketa batzordeak, lehiaketa fasearen puntuaketa kalifikatu ondoren, hautagaien hurrenkera argitaratuko du. Puntuaketa horren aurka egiteko 5 laneguneko epea emango da eta epe horretan erreklamaziorik egongo ez balitz, emaitza behin-betikoa izango da automatikoki.

Behin-betiko zerrenda, behin-behineko zerrenda argitaratutako era eta modu berean argitaratuko da.

Lan-poltsa honen kudeaketa Garbitaniako barne arauen arabera burutuko da.

10.- KALIFIKAZIOAK

Puntuaketa guztira lehiaketaldian ateratakoen puntuaketa izango da eta behin-betiko hurrenkera erabakiko du. Kalifikazioa jendaurrean jarriko da **www.garbitania.eus** web orrian.

Berdinketa izanez gero, hautaketa batzordeak lehentasuna emango die lanpostu horrek duen kidegoan, eskalan edo mailan emakumeen ordezkariak %40 baino txikiagoa denean lehentasuna emango zaio emakumeari, baldin eta beste hautagaiaren egoerak neurria ez aplikatzea justifikatzen duenean, esate baterako, enpleguan sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.

11.-EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA



Azken emaitzak erreklamatzeko epea bukatu eta gero, Garbitaniak hautaketa gainditu duten hautagaiekin lan arriskuen prebentzio eta segurtasunaren inguruko formakuntza ikastaro antolatuko du. Parte hartzera derrigortuak egongo dira hautagai guztiak. Ikastarora bertaratzen ez den hautagaiak, Garbitanian formakuntza saio berri bat antolatu artean ezin izango du Garbitaniarekin kontraturik izenpetu.

Epaimahai kalifikatzaileak, hautaketa gainditu eta prebentzio eta segurtasun arloko formazioa jaso duten hautagaiekin puntuazioaren arabera lan poltsaren hurrenkeraren proposamena egingo dio Garbitaniako Administrazio Kontseiluari, bertan behin-betikoz onartuko direlarik.

12.- KONTRATAZIOA

Hautagaiek bi egun baliodunetan gaitasuna egiaztatzeko eta kontratua egiteko beharrezkoak diren bestelako dokumentazioak aurkeztu beharko dituzte, hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik kontaktzen hasita.

13.- LAN-POLTSA

Lan-poltsa eratuko da hautaketa prozesuaren fase guztiak gainditzten dituzten hautagaiekin, antzeko eginkizunak burutzeko langile premiak betetzeko. Lan-poltsaren gehieneko indarraldiaren epea bost urtekoa izango da edo deialdi berria egin arteko iraupena izango du. Lan-poltsaren esparruan ematen diren kontratazioei Garbitaniako lan-poltsen kudeaketa arauak aplikatuko zaizkie.

14.- GORABEHERAK.

Epaimahaiak ahalmena du aukeraketa prozesua behar bezala joan dadin, oinarrietan jaso gabeko guztiaren inguruan sor daitezkeen zalantza eta gora beherak aztertzeko eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

15.- DATU PERTSONALEN BABESA

Garbitania Zero Zabor S.M.k, sektore publikoko erakundea den heinean, datu pertsonalak tratatzen ditu hautaketa prozesuen kudeaketarako eta prozesu horietatik eratortzen diren lan-poltsen eraketarako. Datuen tratamendurako legitimazio edo lege-oinarria Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikulua ezarritako aurre kontratu harremana da.

Datuak hirugarren bati edo beste erakunde batzuei laga ahal izango dira lege-obligazioak betetzeko beharrezko denean, eta Administrazio Publikoei beraien behin-behineko pertsonal beharrak betetzeko, betiere hautagaiak horretarako baimena eman duenean, Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) y 6.1.a) artikuluek ezarritakoa jarraiki.

Datuak ez dira nazioarteko transferentzien objektu izango eta hautaketa prozesuak eta eratorritako lan-poltsen indarraldia irauten duen bitartean gordeko dira edo hautagaiak aurka egin edo tratamenduari ezezkoa adierazten duenera arte.

Interesdunek eskubidea izango dute eragiten dizkieten datu pertsonalak tratatzen duenaren confirmazioa Garbitaniatik jasotzeko, datuetan sartzeko eta zehaztugabeak direnean datuak zuzentzeko; horrez gain eta halakorik balego, beste



arrazoi batzuen artean, interesdunek datuak jasoak izan ziren helburuetarako beharrezkoak ez direnean, datuen tratamendu mugatzea eskatzeko eta emandako baimena ezeztatzeko eskubidea dute. Horrek ez du eraginik izango ezezkoaren aurretik egindako tratamenduaren legitimazioan.

Interesdunek beraien eskubideak erabil ditzakete dp@garbitania.eus helbidera emaila zuzenduz eta postaz, ondorengo helbidean: Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, 20120 Hernani, Gipuzkoa. Horrez gain Datuen Babeserako Agentzia eskudunari erreklamazioa aurkeztuta, batez ere, eskubideak www.garbitania.eus-en adierazitako helbide elektronikoan eta/edo posta-helbidean erabili eta eskatutako lortu ez duenean.



I. ERANSKINA

ESKABIDEA

| | |
|---------------------|--|
| SARRERA ERREJISTROA | GARBITANIAKO GIDARI BILTZAILEEN LAN-POLTSA |
| | |

DATU PERTSONALAK

| | | | | | |
|--|--|-------------|--------------|-----------------------|--|
| Izen abizenak | | | | | |
| NA zkia: | | Jaioteguna: | | Telefonoa: | |
| Helbidea: | | | | Helbide elektronikoa: | |
| | | | | | |
| Herria: | | | Posta kodea: | | |
| %33ko elbarritasuna edo handiagoa baduzu, adierazi zer egokitzapen berezi behar duzun azterketak egiteko (behar baduzu) | | | | | |
| | | | | | |

IKASKETAK

| |
|--|
| |
|--|

EUSKARA

Euskara maila egiaztatzen duen titulua (edukiz gero)



1HE/PL 1 2HE/PL 2 3HE/PL 3 4HE/PL EGA
Besterik / Otror

MERITUAK

LAN ESPERIENTZIA

| ADMINISTRAZIOA/ENPRESA | LANPOSTUA | HASIERA | AMAIERA |
|------------------------|-----------|---------|---------|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK

- Hautagaiaren pertsonalitatea eta gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa: nortasun-agiri nazionala edo baliokidea.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren originala edo kopia.
- Curriculum Vitaea.
- Hizkuntza eskabideak betetzen direla ziurtatzen duen agiri originala edo kopia.
- Alegatutako merituen agirien originala edo fotokopia.
- Bizitza laboralaren txostena.
- C Gida baimena.
- GPZ.

Behean sinatzen duenak, eskaera hau dagokion aukeratzeko prozeduran onartua izatea
ESKATZEN DU, eta BAIEZTATZEN DU:



- 1) Bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela. Eskatutakoan agiri orijinal bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.
- 2) Pertsonal izaera duten bere datuak, prozesu honetan azaltzen den moduan tratatua izango den fitxategi batetan sartzea baimentzen duela.
- 3) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzeko gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez duela.
- 4) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez duela, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina burutzen ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorriz.
- 5) Diziplina espediente bidez estatuko, autonomi erkidegoetako edo toki-erakundeetako zerbitzutik kanporatu ez izana; eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea.

ZURE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Arduraduna: GARBITANIA ZERO ZABOR S.M. **Helburua:** Lan-poltsen eraketarako hautaketa prozesuen kudeaketa. **Eskubideak eta informazio gehigarria:** Datuen tratamendurekin lotutako eskubideak erabili ahal izango dira eta tratamenduari buruz informazio gehigarria lortu www.garbitania.eus web guneko "Pribatutasun atalean" "langileen hautaketa eta lan-poltsak" pribatutasun politikan.

O Nire datuak beste Administrazio Publikoei komunikatzea baimentzen dut pertsonalaren behin-behineko beharrak betetzeko.

Data _____

SINADURA